



Ikusita Zarauzko Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2021-KALD-000001-00 zenbakiduna.

Ikusita kontu-hartzaileak idatzitako txostena eta ziurtagiriaren arabera espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako foru arauak 31. artikuluen 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honakoa **ERABAKITZEN DUT**:

Lehenengoa.- Onartzea Zarauzko Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK	250.000,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		250.000,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	250.000,00
• FINANTZAKETA GUZTIRA		250.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzarrari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Zarautzen, 2021eko otsailaren 12an
Alkatea